FUNTSEZKO JARDUERA

Jarduera gakoak enpresa batek bere negozioa funtziona dezan egin behar dituen jarduerak dira. Honako hauek dira: produkzioa, arazoa konpontzea eta sare jarduera edo plataforma. Gure enpresaren funtsezko jarduera arazoa konpontzea izango da.

Arazoa konpontzearen barruan hiru parte berei ditzakegu: zerbitzuak, ezagutza eta etengabeko hobekuntza.

1. Zerbitzuak: Estatu Batuetako enpresa batek fabrikatuko du gure produktua, eta guk haiei ordainduko diegu. Gure bezeroek produktua lortzeko, webgune batetik salduko dugu eta subkontratatutako banatzaile batek beraien etxera eramango die, beraiek esandako helbidera hain zuzen ere. Ere aukera izango dute zenbait farmazietan eta elkartetan erosteko posibilitatea.
2. Ezagutza: Negozio- modeloak funtziona dezan, aste proba batekin hasiko gara. Datozen lehenengo 30 bezero erabiltzeko aukera izango dute gure produktua. Dohainik eta produktua konbentzitu badu, aste bat pasa ahala erabakiko du berarekin geratuko diren edo ez. Jarduera honekin, produktuak konbentzitzen badu, bezeroak familiari eta lagunei kontatzen hasiko da, zeini atentzioa emango dien eta probatzera etorriko dira.
3. Etengabeko hobekuntza: Gure produktua erabileraren aldetik errazagoa izan dadin asmatu egin zen. Erabilera hau duten beste produktu batzuk, adibidez, pastillak edo paperezko tira batzuk, eraginkortasun berdina dute baina haien erabilera ez da hain erreza. Ondo funtzionatzen badu eta ondo saltzen bada, produktua hobetu ahal izango dugu erosleen iradokizunen arabera.